

OHIZKO OSOKO BILKURA

2004.03.23

Tolosako Udaletxean, 2004ko martxoaren 23an, arratsaldeko zazpitan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohizko osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Jokin Bildarratz Sorron, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las siete de la tarde del día 23 de marzo de 2004, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia del alcalde, Jokin Bildarratz Sorron, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:

Jokin Bildarratz Sorron

Bertaratutako zinegotziak:

Jose Andueza Oyarzabal
Andoni Imaz Garmendia
Jokin Azkue Arrastoa
Yurre Peñagaricano Zubeldia
Jon Aldazabal Etxeberria
Itxaropena Urquiola Negredo
Onintza Lasa Arteaga
Andoni Iturzaeta Arbillaga

Jose Miguel Gomez Elosegui
Kepa Diaz de Alda Imaz
Angel Bernardo Yañez Ares
Jorge Juan Outeiral Hernandez
Oscar Hugo Renedo Nieto
Jose Luis Vilanova Alonso
Jose M^a Vieites Gomez

Ez bertaratutakoak:

Olatz Peon Ormazabal

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Eguneko gai zerrenda

1. Osoko bilkurako akta hauek onartzea:

2004ko otsailaren 16ko Aparteko Osoko bilkura.

2004ko otsailaren 17ko Osoko bilkura.
2. Alkatetza dekretu hauen berri ematea:

2003ko itxiera (1834/2003 – 1855/2003)

Orden del día

1. Aprobación de las siguientes actas plenarias:

Sesión Extraordinaria del 16 de febrero de 2004.

Sesión Ordinaria del 17 de febrero de 2004.
2. Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

Cierre 2003 (1834/2003 al 1855/2003)

OHIZKO OSOKO BILKURA

2004.03.23

- | | |
|--|---|
| 2004ko otsailaren 12tik 2004ko martxoaren 16ra bitartekoak (170/2004- 365/2004). | Desde el de 12 de febrero de 2004 al 16 de marzo de 2004 (170/2004 al 365/2004). |
| 3. Kutzako Udal-Korporazioen ordezkari izango diren Kontseilari Orokorrak izendatzea. | 3. Nombramiento de representantes de la Corporación Municipal como Consejeros en Kutxa. |
| 4. Euskaraz Errotuluak jartzeagatik dirulaguntzak emateko araudia onartzea. | 4. Aprobación de la normativa reguladora para la concesión de subvenciones para rótulos en euskera. |
| 5. Lehendakaria den Olatz Peon Ormazabalen kargu uztea, eta Jokin Bildarratz Sorrón Lehendakari berria izendatzea. | 5. Aceptación de la renuncia del cargo de Presidente de Tolargi, Olatz Peon Ormazabal, y nombramiento de nuevo presidente, Jokin Bildarratz Sorrón. |
| 6. Batzorde informatiboetan ordezkaria izendatzea. | 6. Nombramiento de miembro de Comisiones Informativas |
| 7. Tolosa 750. Urteurrena Fundazioaren sorrera. | 7. Creación Fundación Tolosa 750. Urteurrena. |
| 8. Iñaki Linazasorori omenaldia. | 8. Homenaje a Iñaki Linazasoro. |
| 9. Galde-erreguak | 9. Ruegos y preguntas. |

Lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

Se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

1.Osoko bilkurako akta hauek onartzea:

1. Aprobación de las siguientes actas plenarias:

2004ko otsailaren 16ko Aparteko Osoko bilkura.

Sesión Extraordinaria del 16 de febrero de 2004.

2004ko otsailaren 17ko Osoko bilkura.

Sesión Ordinaria del 17 de febrero de 2004.

Izenburuan aipatutako aktak, ahobatez, **onartu** dira.

2. Alkatetza dekretu hauen berri ematea:

2. Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

2003ko itxiera (1834/2003 – 1855/2003)
2004ko otsailaren 12tik 2004ko martxoaren 16ra bitartekoak (170/2004- 365/2004).

Cierre 2003 (1834/2003 al 1855/2003)
Desde el de 12 de febrero de 2004 al 16 de marzo de 2004 (170/2004 al 365/2004).

OHIZKO OSOKO BILKURA

2004.03.23

Alkatetzak, 2003ko itxiera((1834-1855/2003) eta 2004ko otsailaren 12tik martxoaren 16ra, egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei (170-365/2004), eta Udalbazkideak jakinaren gainean geratu dira

3. Kutxako Udal-Korporazioen ordezkari izango diren Kontseilari Orokorrek izendatzea. 3. Nombramiento de representantes de la Corporación Municipal como Consejeros en Kutxa.

Estatutuetako 20.2 artikuluan eta Hauteskunde arautegiko 31.1 artikuluan xedatutakoa betez, Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxaren gobernu organoetan Tolosako Udalari dagokio bi ordezkari izendatzea.

Kontuan izanik Kutxak 2004ko otsailaren 10ean bidalitako idatzia, non adierazten den orain arte izendatutako bi ordezkariak amaitu dutela izendapenaren epealdia.

Hori horrela, Udalbatzak, ahobatez, honako hau

ERABAKI DU

Lehen.- Tolosako udalaren izenean Kutxako bi kontseilari orokor izendatzea:

- Agustin Katxo Etxegarate, EAk proposatutako ordezkaria.
- Jokin Bildarratz Sorron, EAJk proposatutako ordezkaria.

Bigarren.- Izendatutakoari adieraztea Kontseilari Orokorrek Estatutuetao 18. Artikuluan ezarritako baldintzak bete behar dituztela eta ezin dutela Estatutuetao 13. eta 19. Artikuluetan aipatzen diren bateraezintasun egoeran egon.

Hirugarren.- Erabaki honen berri Gipuzkoa Donostia Kutxari eta izendatutako ordezkarietara jakinaraztea.

4. Euskaraz Errotuluak jartzeagatik dirulaguntzak emateko araudia onartzea. 4. Aprobación de la normativa reguladora para la concesión de subvenciones para rótulos en euskera.

1990eko abuztuaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Euskeraren erabilera normalizatzeko Arauak erregulatzen dituen Udal Ordenantza, urte horretako ekainaren 29ko Osoko Bilkuran onartua.

Ordenantza horretan, 30. artikuluan, arautzen da diru laguntza ematearena establezimenduko fatxadan jarritako errotulu nagusiarengatik. Arautegiaren helburua da errotulua ezezik, establezimenduaren gainontzeko informazioa ere euskeraz eskeintzea, baina hori ez da betetzen.

Horregatik bultzatu da, onartzeko, proposatzen dan aldaketa. Honek honela dio:

OHIZKO OSOKO BILKURA

2004.03.23

- “Lehen.-** *Diru laguntza establezimenduaren fatxadan jarritako errotulu nagusiarengatik emango da.*
- Bigarren.-** *Euskara hutsean idatzitako errotulu berriaren %50 ordinduko dio Tolosako Udalak eskatzaileari, 450 €-ko mugapean.*
- Hirugarren.-** *Errotulu nagusiak euskara hutsez egon behar du (Adib.: Larrarte arrandegia):*
- Laugarren.-** *Errotulu nagusiak izen berezia bakarrik badu, ez da diru laguntzarik emango (Adib.: Larrarte)*
- Bostgarren.-** *Diru laguntza jaso ahal izateko, errotulu nagusia euskara hutsez egoteaz gain, establezimenduaren hizkuntza paisaia finko eta orokorrak (erakusleihoa, toldoa, barruko oharra, prezioak...) euskaraz ere egon behar du.*
- Seigarren.-** *Diru laguntza jaso ahal izateko, Tolosako Ekonomia-jardueren erroldan azaldu behar du.*
- Zazpigarren.-** *Behin diru laguntza jaso ondoren, establezimenduaren errotulu nagusiaz gain, hizkuntza paisaia finko eta orokorrak ere euskaraz izan behar du. Hala ez bada, bere garaian jasotako diru laguntza itzul dezan eskatu ahal izango zaio.*
- Zortzigarren.-** *Diru laguntza jasotzeko ekarri beharreko agiriak:*
- *Tolosako Udalaren Erregistroan dagoen eskaera orria behar bezala beteta.*
 - *Establezimendua, Tolosako Ekonomia-jardueren erroldan dagoenaren ziurtagiria.*
 - *Errotulu nagusiarengatik ordaindutako diru kopuruaren ordainagiria.*
- Bederatzigarren.-** *Diru laguntza eskaria errotulu nagusia jarri ondorengo 90 egunen barruan egin behar da. Ordainagiriaren data hartuko da estreinako egun moduan. Eskaera eta beste agiri guztiak Tolosako Udalaren Erregistroan aurkeztu behar dira.*
- Hamargarren.-** *Diru laguntza izaera ofizialekoak ez diren merkataritza edo/eta zernahi motatako erakundeei eman ahal izango zaie.*

Eztabaida atalean Onintza Lasa Arteagak, Euskera eta Hezkuntza Saileko Lehendakariak, adierazten du araudia aldatzearen arrazoia, merkatal gune batzuk errotulua euskeraz jarri arren, merkatal gune barneko informazio eta hitz gehienak gaztelaniaz jartzen zituztela dio eta helburua hau ez denez, arazoa ekiditeko egin dela aldaketa.

Hortaz, teknikoaren txostena ikusirik eta Euskera eta Hezkuntza batzordeak (2004-02-17) horrela diktaminatuta, Udalbatzak, aho batez,

2004.03.23

ERABAKI DU

Lehen.- Proposatutako Aldaketa, xedapen zatian adierazitakoa, haseraz onartzea.

Bigarren.- Espedientea jendaurrean jartzea, iragarkia ediktu taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, interesatuek, 30 eguneko epean, alegazioak edo erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Alegazio edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz epe barruan, aldaketa behin betiko onartutzak joko litzateke.

Hirugarren: Aldaketa behin betiko onartua izatean, testua Euskeraren erabilera normalizatzeko Arauak erregulatzen dituen Udal Ordenantzaren 30. artikularen 4. atalean txertatzea.

5. Lehendakaria den Olatz Peon Ormazabalen kargu uztea, eta Jokin Bildarratz Sorron Lehendakari berria izendatzea. **5. Aceptación de la renuncia del cargo de Presidente de Tolargi, Olatz Peon Ormazabal, y nombramiento de nuevo presidente, Jokin Bildarratz Sorron.**

Olatz Peon Ormazabal Tolargiko kontseiluko Lehendakaria da, eta orain, amatasun egoeran dagoela eta, baja hartu du.

Horregatik, ezinbestekoa jo da lehendakari berri bat izendatzea. Kargu horretarako alkatea bera proposatu da.

Bestalde, Tolosako Mankomunitatean ere berdin gertatzen da, eta kargu honarako ere alkatea bera proposatu da.

Ondorioz, Eako zinegotzien abstentzioarekin, Udalbatzak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehen.- Tolargiko kontseiluko Lehendakari izateko eta Tolosaldeko Mankomunitatean udalaren ordezkari izateko, Jokin Bildarratz Sorron proposatzea eta izendatzea, hurrunez hurrun.

Bigarren.- Erabakiaren berri Tolargiri eta Tolosaldeko Mankomunitateari ematea.

Partehartze atalean honako hauek izan dira:

... Angel Yañez Ares, P.P., cree que se debería de esclarecer y definir quien compondrá el Consejo de Administración de Tolargi.

2004.03.23

...El Alcalde le contesta que será él quien se haga cargo a partir del 1 de abril del 2004 y que más adelante ya verá cuales serán los cauces que tome el Consejo de Administración, ya que él todavía no es capaz de definir este tema.

...Onintza Lasa Arteaga, E.A., quiere saber en que reglamento se basa el Alcalde para hacerse cargo del puesto y de todas sus funciones mientras dure la baja temporal de Olatz.

...Jose Luis Unanuek, idazkaria, Alkateak hitza eman ondoren adierazten du, Alkatea postua hartzeko oinarritzen dela, alde batetik dagokion organismoko estatutuetan ezarririk dauden kompetentzietan eta, beste alde batetik, gainontzeko aldaketei dagokionez, botere kuotetan.

Alkateak eta E.Ako zinegotziak ez dira ados jartzen, Olatz Peon Ormazabalen baja dela eta, Alkatearen kargu hartzearekin, ez eta prozedura eta formarekin.

6. Batzorde informatiboetan ordezkaria izendatzea. **6. Nombramiento de miembro de Comisiones Informativas**

Olatz Peon Ormazabalek, hainbat batzordetan partaide denak, baja hartu du, eta luzerako, amatasun egoeran dago eta. Horregatik, ezinbestekoa jo da ordezkoak batzorde batzuetan adskribitzea

Hortaz, Udalbatzak erabaki du batzordeetan adskribizio hauek ontzat ematea, Olatz Peon Ormazabalen ordeze:

Obra, auzoak eta herri-mantenimendua: Andoni Imaz Garmendia (Lehendakaria).

Osasuna eta gizarte zerbitzua: Itxaropena Urkiola Negrodo (Bokala).

Bestalde, Alkateak informatu du Lehengo Alkateorde eta Gobernu Batzorkide Yurre Peñagarikano Zubeldia izendatu duela Olatz Peon Ormazabalen ordeze, eta liberatu, dedikazio osoz, Andoni Imaz Garmendia zinegotzia, haren ordainsari kopuruarekin.

7. Fundación Tolosa 750 Aniversario/Tolosa 750. Urteurrena Fundazioa eratzea. **7. Creación Fundación Tolosa 750 Aniversario/Tolosa 750. Urteurrena.**

2006. urtean Tolosako herriaren fundazioaren 750. urteurrena beteko da. Tolosako Udalak data historiko hori ospatzeko asmoa du, eta horretarako, Tolosak mendeetan zehar bete duen paper historikoa begiratzuz, Tolosaren irudia zabalduko du, herri eta nazioarte mailako proiektio publikoa (bereziki, mundu osoan dauden

OHIZKO OSOKO BILKURA

2004.03.23

Tolosa izeneko herrialdeetan) izango luketen egintza multidisziplinarrak antolatuz, ahalik eta herri partaidetzarik zabalenarekin. Era berean, beste hainbat ekimen ere garatu nahi dira: erakusketak, argitalpenak, ikus-entzunezkoak, kontzertuak eta, azken batean, Tolosako herriari ospea eman eta kohesionatzeko egokiak izan daitezkeen ekimenak.

Aipatu dugun helburu horrekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen ekainaren 17ko 12/94 Legeak xedatuaren babesean fundazio bat eratzea komenigarritzat jo da.

Erakunde horren helburua honakoa litzateke: batetik, ospakizun horretarako programatuta dauden ekimenak finantzatzeko bideak aurkitzea; eta bestetik, Fundazioaren helburuen artean aurreikusten diren emaitzak lortzeko herriaren parte hartzea bultzatzea. Horrek guztiak Tolosako herriarentzat ahalik eta emaitzarik onena lortzea du xede.

Ondorioz, martxoak 16an Kultur Batzordeak egindako proposamena ikusirik, Udalbatzak, ahobatez,

DIKTAMINATU DU

- Lehen:** Fundación Tolosa 750 Aniversario/Tolosa 750. Urteurrena Fundazioa eratzea.
- Bigarrena:** Fundazioaren Estatutuak onartzea (honekin batera doaz Estatutuak).

ESTATUTOS DE LA FUNDACION TOLOSA 750 ANIVERSARIO/ TOLOSA 750. URTEURRENA FUNDAZIO ESTATUTUAK

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.- Eraketa, izendapena eta iraupena

Fundación TOLOSA 750 ANIVERSARIO/ TOLOSA 750. URTEURRENA Fundazioa izenpean, 1994ko ekainaren 17ko 12/1994 Legearekin eta egungo araudiarekin bat datorren Fundazioa eratu da.

Fundación TOLOSA 750 ANIVERSARIO/ TOLOSA 750. URTEURRENA Fundazioa irabazteko asmorik gabe sortutako erakundea da. Sortzaileek hala nahi izan dutelako, oraingo Estatutuen 3. artikuluan deskribatutako interes orokorreko ekintzak egiteko asmoaren menpe dago bere ondarea.

2. Artikulua.- Erregimen juridikoa, nortasuna eta ahalmen juridikoa

Eraketaren eskritura Fundazioen Erregistroan inskribatu zenetik, Fundazioak bere nortasun juridikoa eta independentea du. Horrez gain, zuzenbidezko gaitasun betea izango du eta fundatzaileen borondatezko egintzetan oinarritu beste mugarik gabe egingo dituzte Fundazio ekimenean, egungo Estatutuetan eta bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen ekainaren 17ko 12/1994 Legean aplikagarri zaizkion legezko xedapenetan.

Horren ondorioz, eta Protektoratuari egindako komunikazio egokien kalterik gabe, Fundazioak edozein motatako ondasun higigarri eta higiezinak eta eskubideak grabatu, lortu, mantendu, eduki eta besterendu ditzake. Horrez gain, mota guztietako ekimenak eta kontratuak egin ahalko dira; maileguak kobratu eta

2004.03.23

ordaindu; gobernu-bidera edo judizialera jo eta bide hori onartu epaileen, auzitegien eta erakunde publiko eta pribatuen aurrean hainbat ekimen eta salbuespen erabiliz, araudi juridikoan xedatutakoa betez.

3. Artikulua.- Fundazioaren helburuak

Fundación TOLOSA 750 ANIVERSARIO/ TOLOSA 750. URTEURRENA Fundazioak honako fundazio helburuak ditu: historian zehar egindakoaren errepaso historiko bat eginez, Tolosa herriarentzat data historikoa dena ospatzea; Tolosako herriaren irudia zabaltzea proiektio publikoa duten jardueren bidez (herri mailan, Euskadi mailan eta nazioarte mailan; eta bereziki mundu osoko Tolosa izeneko herrien artean); Tolosa herriaren legatu historikoa bultzatzea eta datozen urteei begira, ospakizuna dela eta sortu diren energia eta baliabideak garatzea. Azkenik, Tolosako hiriri sona eta kohesioa emango lizkioketen erakusketak, argitalpenak, ikus-entzunezkoak eta kontzertuak antolatzea edo garatzea.

Helburu zabal horien barnean, ekimen zehatz garrantzitsuenak eta berehalakoenak hauek izango dira:

Adibide gisa hauek aipatu behar dira:

- 1) Ospakizunarekin lotura duten gertaerak antolatzeaz, bultzatzeaz eta koordinatzeaz arduratzen diren elkarte kulturelei eta banakoei *dohainak ematea*.
- 2) *Lehiaketak, kongresuak, ikastaroak, mintegiak eta hitzaldiak antolatzea, baita formazio kultureleko eta gizatasuneko beste ekimen batzuk ere.*
- 3) *Erakusketak egitea.*
- 4) *Aldizkarien eta argitalpenen edizioa.*
- 5) *Beken, laguntzen eta sarien promozioa.*
- 6) *Tolosaren iragana eta etorkizuna interpretatzeko beste baliabide batzuk ekoiztea.*
- 7) *Kirol eta jolas emanaldiak egitea.*
- 8) *Nazioarteko jarduerak (Europako herrien sarea, kongresuak, azokak...).*
- 9) *Hiri espazioak errekuperatzen laguntzea.*
- 10) *Helburuak betetzeko baliagarria den beste edozein jarduera.*

4. Artikulua.- Helburuen garapena

Fundazioaren helburuak Fundazioari berari bidezko iruditzen zaion eran gara daitezke, baita beste entitate edo erakundetan parte hartzea ere, baina, beti, eraketa-kartak, Estatutu hauek eta, edozein modutan ere, legeek ezarritako mugak errespetatuz.

2004.03.23

5. Artikulua.- Helbidea

Fundazioak Tolosan izango du bere egoitza. Honako helbide honetan: Plaza Zaharra 6, Udalaren eraikinean. Patronatua aske izango da egoitza soziala lekuz aldatzeko, eta hori egin aurretik Fundazioen Erregistroan jakinarazi beharko du. Era berean, Patronatuaren esku egongo da erabakitzea bere establezimendu, ordezkaritza eta bulegoak non jarri, bere helburuak betetzeko premiek eskatzen dutenaren arabera.

6. Artikulua.- Jarduketa eremua

Fundazioak, gehienbat, Tolosan eta Euskal Herrian gauzatuko ditu ekimenak. Hala ere, espainiar Estatuan, Europako Batasunean eta Ameriketako Estatu Batuetan burutu ahal izango ditu egokitzat jotzen dituen jarduerak.

7. Artikulua. Onuradunak

Patronatuaren ustean merezi duen pertsona fisiko zein juridiko oro izan daiteke Fundazioaren prestakuntzen onuradun; batez ere, Tolosako, Gipuzkoako eta Euskal Herriko herritarrak.

8. Artikulua.- Onuradunen zehaztapena

Onuradunak erabakitzeko orduan hurrengo arau hauei jarraituko zaie:

Fundazioak, dituen interes orokorreko helburuen barruan, onuradunak hautatzeko, irizpide hauekin jardungo du: objetibotasuna, publizitatea eta inpartzialtasuna. Era horretan, 8. artikuluan sartzen diren pertsonak izan daitezke onuradun, eta ezin izango da inongo diskriminaziorik egin.

Inolaz ere ezin dute onuradun izan pertsona indibidualki determinatuak eta Fundazioaren prestazioak ezin izango dira destinatu fundatzaileentzat, ezta haien ezkontide eta laugarren gradu bitarteko ahaideentzat ere.

Fundazioak eskatzen dienean onuradunei kopururen bat ordaintzea emandako zerbitzuengatik, hura zehazterakoan, eta besterik gabe, emandako zerbitzuari dagokiona izango da. Era berean, Fundazioak gauzatutako jarduera konkretuaren berezko izaeragatik ondorioztatzen bada onuradunen kopurua mugatu egin behar dela, onuradunen hautaketa eta zehaztapena Fundazioaren Patronatuak egingo du, kontuan hartuta honako irizpide hauek: izangaien meritua, premiak, ahalmen ekonomikoa eta aprobetxamendu aukera; edo, oinarritzat hartuz bestelako ezaugarri objektiboak. Edonola ere, bere helburuei eta jarduerari eman beharko die behar adinako publizitatea. Edozein kasutan, inork ezin izango du alegatu, ez indibidual ez kolektiboki, Fundazioaren aurrean zein bere organoen aurrean, aipatu onurez baliatzea, haiek eman baino lehen, ezta pertsona jakinei inposatu ere bere atribuzioa.

II. TITULUA. PATRONATUA

1. ATALA. OSAKETA ETA ESKUMENAK.

9. Artikulua.- Patronatua

Patronatua da gobernu, administrazio eta Fundazioa ordezkatzeko erakunde gorena, eta, era berean, Fundazioaren helburuak gauzatzeko, bere ardurapean izango ditu fundazio kudeaketaren zuzendaritza eta kontrol ahalmen guztiak. Zehatz esanda, Fundazioaren ondareak dituen eskubide eta ondasun guztiak administratuko ditu.

10. Artikulua.- Osaketa eta iraupena

Patronatua gutxienez hiru kidek osatuko dute eta gehienez hamahiruk.

Patronatuaren kargua iraunkorra izango da.

11. Artikulua. – Patronoen izendapena eta hutsik dauden lekuak betetzea

Lehenengo Patronatua sortzaileak berak izendatuko du fundazio eskrituran. Dena dela, Tolosako Udaleko alkatea da Patronatoaren zuzendaritza organoko berezko patronoa.

Patrono berrien izendapena, bai zabalkundearengatik, bai bertako kideak ordezkatzeko, Patronatuak bideratuko du. Hala ere, horretarako, gutxienez, kideen gehiengoaren aldeko botoa beharko du erabakiak.

Izendatutako patronoek Legearen 12. artikuluan aurreikusitako formularen batekin onartu beharko dute kargua. Onarpen hori Fundazioen Erregistroan inskribituko da.

Heriotzagatik, ezintasunagatik, gaitasungabetzeagatik, heriotza adierazpenagatik, baztertu izanagatik edo bateraezintasunagatik, agintaldia amaitu delako, uko egiteagatik, enkaitzeagatik, gobernu organoko kideren batek kargua utzi duelako edo ordezkapena egiteko beste arrazoiren batengatik, bide bera erabiliz beteko dira hutsuneak. Gainera, bete gabeko leku horrek ezingo du 6 hilabete baino gehiago hutsik iraun.

Patronatuko kideak behartuta daude erakunde hori egungo Estatutueto 10. artikulua akordioen baliotasunerako zehaztutako gutxieneko kopuruarekin mantentzera.

Patronatuko kideak kargutik kendu ahal izango ditu epaileak, Estatutuen 20. artikuluan eta Legean aurreikusitako moduan ez betetzeagatik kargua.

Gobernu organoko kideen ordezkapena, kargu-uztea eta kargutik kentzea Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

12. Artikulua.- Doakotasuna

Patronatuko kideek doan beteko dute euren kargua. Hala ere, ekimenak burutzerakoan egindako gastuak, behar bezala frogatuz gero, ordaindu egingo zaizkie.

13. Artikulua.- Fundazioko presidentea

Tolosako alkatea izango da Patronatuaren buru, berezko presidente gisara. Bere ardura izango da Patronatuari dei egitea berak erabakitzen duenean edo gutxienez heren batek eskatzen dionean. Era berean, bere eginbeharrak dira deliberazioak zuzentzea eta hartutako erabakiak betearaztea.

Patronatuko presidentea izango da gobernu organoko ordezkari gorena. Hori dela eta, aipatu erakunde horri atxikitako ahalmenez eta Estatutuek berari ezarritakoez gain, Patronatuko presidentearen ardura izango da Patronatuko akordioetatik datozen ekimen eta kontratu guztietan, eta Fundazioko beste organo guztietan, Fundazioaren ordezkari izatea. Patronatuko presidentek auzietan prokuradoreen edo abokatuen alde botere orokorrak emateko ahalmena duenez, auziak, espedienteak, administrazio ardurak, Gobernu ardurak, judizialak eta judizioz kanpokoak ere bere ardura izango dira aipatu ahalmenak emateko orduan.

14. Artikulua.- Presidenteordea

Patronatuak, kide guztien artetik, presidenteordea izendatu ahalko du, eta hautatutako presidenteordea kide gehienek bozen bidez aukeratuko dute.

Presidenteak huts egin edo gaixotasunen bat edukiz gero, presidenteordeak hartuko du bere lekua, eta hori egiaztatzeko nahikoa izango da horien berri ematea. Presidente edo presidenteordearen ausentziak adinez nagusia den kideak beteko ditu.

15. Artikulua.- Idazkaria

Patronatuak, *bere kide direnen edo ez direnen artetik*, idazkari bat aukeratu ahal izango du. Idazkari horrek Fundazioko administrazio lanen Zuzendaritza kargua izango du, dokumentazioa begiratuko du, eta behin onartutakoan eta presidentearen oniritzia jasotakoan, akta- liburuan transkribatutako saioen akta jasoko du.

16. Artikulua.- Diruzaina

Patronatuak hala nahi izanez gero, *bere kide direnen edo ez direnen artetik*, diruzaina aukeratuko du. Diruzain horrek Patronatuak eskatutako eginkizunak beteko ditu.

Diruzainaren eginbeharrak, agindu dakizkionak, honako hauek dira:

- 1.-Fundazioaren fondoak bildu eta babestu.
- 2.-Sarreren eta gastuen balantzeren aurkezpena eta sinadura.

3.-Inbentario, Kontu, Aurrekontu eta Eguneroko liburuez arduratu.

17. Artikulua.- Fundazioaren zerbitzurako pertsonala

Era berean, Patronatuak gerentzia, kudeaketa edo fundazioaren izenean beste hainbat ekintza egiteko agindua eman diezaioke gobernu organoko kide bati edo hirugarren pertsona bati. Eginbehar horiengatik behar adinako diru kopurua emango zaie.

18. Artikulua.- Patronatuaren eskumenak

Patronatuaren eskumena Fundazioko gobernuari dagokion guztira dago zabaldua eta bereziki, honako puntuetara:

- 1- Helburuak hobeto bete daitezen, Fundazioaren orientazioa adieraztea.
- 2- Ekonomia eta finantza baliabide guztien administrazioa, jatorria edozein delarik ere.
- 3- Aurreko ekitaldiko inbentarioa, egoeraren balantzea, emaitzen kontua eta memoria onartzea eta aipatutako denboraldiko gastuak eta diru sarrerren aurrekontuak kitatzea.
- 4- Hurrengo ekitaldiko diru sarrerren eta gastuen aurrekontua onartzea, baita bere azalpen memoria ere.
- 5- Barne-erregimeneko araudia onartzea.
- 6- Ordezkaritza batzordeak sortzea, kideak izendatzea, eta ahalmenak zehaztea eta hurrengo artikuluan adostutakoaren arabera, ahalordetze orokorrak edo bereziak egilestea.
- 7- Zuzendaritza-karguen, exekutiboen eta aholkularien izendapenak, baita pertsonal teknikoaren, administrazioaren eta langileriaren kontratazioa ere, Estatutu hauen 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- 8- Hainbat ekimen eta kontratu formalizatu eta gauzatzea, bai zibil erakoak, merkataritzakoak, administraziokoak edo beste edozein motatakoak, Fundazioaren helburuek eskatzen dutenaren arabera.
- 9- Akordio gorena ebatzi behar den gaietan, eskumena duten erakundeei bidezko diren proposamenak egitea.
- 10- Laguntza hitzarmenen eta fondo ekarpenen bidez, enpresa, entitate, organismo edo partikularrak kooperazio teknikoko programetan eta pertsonal kualifikatua prestatzeko programatetan parte hartzea bultzatzea.
- 11- Fundazioarentzat onuragarri den heinean, eta Protektoratua jakinaren gainean jarrita, oinordetzak, legatuak eta dohaintzak onartzea edo ukatzea.
- 12- Sortzailearen nahia hobeto bete dadin, beharrezkoa izanez gero, Fundazioaren Estatutuak aldatzea.

2004.03.23

19. Artikulua.-Ordezkaritzak, ahalordetzeak eta Batzorde Delegatuak

Patronatuak bere ahalmen guztiak edo batzuk kide bati edo batzuei eskuordetzan eman diezazkioke, salbu aurrekontuen eta kontuen onarpena, ohiko kudeaketatik at dauden ekimenak edo Protektoratuaren beharra dutenak.

Aipatu berri ditugun zehaztapen horiekin guztiekin eta kasu bakoitzean zehaztutako gaitasunarekin, Patronatuak Batzorde Delegatuak eta Exekutiboak osa ditzake; baita ahalordedun orokor edo bereziak izendatu ere, eginkizun *mankomunatuekin edo solidarioekin*.

Ordezkaritzak eta ahalordetze orokorrak, auzitarako izan ezean, eta haien errebokatzeak, Fundazioen Erregistroan inskribatu behar dira.

20. Artikulua. - Patronatuaren betebeharrak

Fundazioko Patronatuko kideek honako betebeharrak dituzte:

- a) Legean eta Fundazioaren Estatutuetan ezarritakoaren arabera, fundazio-helburuak zorrotz betetzea eta betearaztea.
- b) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratzea eta kudeatzaile on baten irizpide ekonomiko eta finantza irizpideen arabera, euren produktibitateari eustea.
- c) Legezko ordezkeri baten ardurarekin karguari eustea.

21. Artikulua.- Autokontratazioa debekatzea

Patronatuak onartu ezean, nahiz norberaren izenean, nahiz beste baterenean, Patronatuko kideek ezingo dute Fundazioarekin kontratatu.

22. Artikulua.- Erantzukizuna

- 1- Legeek zehazten duten neurrian, Patronatuko kideek Fundazioaren erantzukizuna dute.
- 2- Erantzukizun guztietatik at geldituko dira akordioa adostu zenean bat ez zetozen guztiak edo akordio hori onartzen lagundu ez zutenak. Hala ere, horretaz jakitun zirenak baina euren desadostasuna agertu ez zutenak ez dira erantzukizunetik at geldituko.
- 3- Fundazioaren Erregistroan inskribatuta geratu beharko dute gobernu organoek duten erantzukizunak barnean dituen eskaera ekintzak, jurisdikzio arruntaren aurrean, eta horri dagozkion epai irmoak.
- 4- Protektoratuak, bere ekimenez edo interes legitimodunaren arrazoizko eskaeraz, erantzukizun ekimen hori egikari dezake. Horrez gain, Patronatuko kideen ekimena Fundazioaren helbururako kaltegarria denean, sortzaileak bidera dezake ekimen hori.

2004.03.23

2. ATALA. PATRONATUAREN JARDUERAREN ERREGIMENA

23. Artikulua.- Barne jarduera

Patronatuak, gutxienez, urtean bi bilera egingo ditu. Urteko lehen sei hilabeteetan, aurreko urteko aurrekontuen kitapena onartzeko bilduko da. Horrez gain, inbentarioa, ekimenen memoria eta aurreko urteko ekitaldiaren egoeraren balantzea, eta Estatutuen 30. artikuluan aurreikusitakoaren arloko emaitzen kontuez hitz egiteko bilduko dira. Era berean, laugarren hiruhilekoan, bidezko deialdia eginda, hurrengo urteko aurrekontuak onartzeko dira, abenduaren 31 baino lehen Protektoratura bidaltzeko.

Patronatuko deialdiak idatziz egin beharko dira eta presidenteak erabakitako gai-zerrendari eutsi beharko zaio. Presidenteak, gutxienez, bilera baino 10 egun lehenago, gobernu organoko kideen iradokizunak kontuan izan beharko ditu. Hala ere, presazko kasuetan, epea 3 egunetara murriz daiteke.

24. Artikulua.- Eraketa eta akordioen onarpena

Patronatua lehen deialdian behar bezala osatuta geldituko da, pertsonalki edo ordezkari baten bidez, kideen erdiak baino bat gehiagok parte hartzen badu.

Aipatu berri dugun quoruma beteko ez balitz, Patronatua handik ordubetera bilduko litzateke eta bigarren bilera horretan, gutxienez, hiru kide beharko dira, presidenteak, presidenteorde titularrak eta idazkariak bertan izan beharko dutelarik. Idazkariak parte hartuko ez balu, bertakoek izendatutako beste patrono batek beteko ditu haren eginkizunak.

Orain arte adierazitakoaz gain, kide guztiak batzen direnean eta bilera egitea aho batez onartzen dutenean hartuko da Patronatua osatutzat.

Akordioak botoen gehiengoaren bidez onartzeko dira, honako kasu hauetan izan ezean, behintzat:

- 1.- Aldaketa, bat-egite eta desagertze akordioa. Horrek bildutakoaren bi herenen aldeko botoa beharko du.
- 2.- Estatutuetan bozketa desberdineko quorum bat ezarrita duen beste edozein.

Berdinketa gertatuz gero, presidentearen botoa erabakigarria izango da.

Patronatuko bilera bakoitzean, idazkariak akta egingo du. Aktan bilera eguna eta lekua zehaztuko dira, eta bertaratutakoak zein diren eta deliberazioaren helburu diren gaiak eta hartutako erabakien edukiak.

III. TITULUA. ONDAREA ETA ERREGIMEN EKONOMIKOA

I. ATALA. OSAKETA, ADMINISTRAZIOA ETA ZAINKETA

25. Artikulua.- Fundazioaren ondarea

Fundazioaren ondarea balorazio ekonomikoko era guztietako ondasunez edo eskubidez osatuta egon daiteke.

Fundazioa, xedapen-egintza eta administrazio-egintzetan, arau aplikagarrietara mugatuko da. Ondareak edo errentak bere helburuetarako erabiliko ditu, beti ere Estatutuen arabera.

26. Artikulua.- Baliabideak

Fundazioko ondarea hauek osatzen dute:

- a) Fundazio eskrituran bildutako hasierako hornidurak.
- b) Kide sortzaileek (eta atxikiak) egindako ohiko eta ohiz kanpoko ekarpen eta kuotak, eta Patronatuko kideek ordaintzea erabakitzen dituzten ohiko eta ohiz kanpoko ekarpen eta kuotak.
- c) Zuzenbidean onartuta dauden baliabideez lortutako beste edozein ondasun eta eskubide. Eta, bereziki, beste pertsona, erakunde edo instituzioek emandako legatu, dohaintza, ekarpen eta subentzioak. Dohaintzak, legatuak eta herentziak onartzerakoan, Protektoratuari jakinarazi beharko zaio.
- d) Fundazioak egindako ekimenen eta ondarearen onurak edo produktuak, etekinak edo errentak, eta eman ditzakeen zerbitzuen ordainketak, indarrean dauden legeen arabera.
- e) Legezko aplikazio esparruan, beste edozein baliabide.

27. Artikulua.- Ondare aldaketa

Egoera ekonomikoak gomendatzen duen heinean, Fundazioko Patronatuak nahi duen adina aldiz egingo ditu fundazioaren kapitalean beharrezkotzat hartzen dituen aldaketa, eraldaketa eta bihurketak, helburu honekin: kapitalaren balio nominala mantendu eta ere, eros ahalmena edo benetako balioa ez dadila murriztu.

28. Artikulua.- Fundazioko ondarearen zainketa

Fundazioko ondarea zaintzeko eta babesteko honako arau hauek beteko dira:

- a) Fundazioko ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideek Fundazioaren izenean egon beharko dute eta inbentarioan euren berri izan beharko da eta dagokien Erregistroan inskribatuko dira.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2004.03.23

- b) Ondasun higiezinak edo eskubide errealak Fundazioaren izenean inskribatuko dira Jabetza-Erregistroan. Inskribatu daitezkeen gainerako ondasunak dagozkien erregistroetan inskribatuko dira.
- c) Baloreak, dirua, jabetza-tituluak, gordailuko frogagiriak eta jabari, jabetza, erabilera, baliatze edo fundazioaren beste edozein eskubideren egiaztagiriak Fundazioaren izenean Patronatuak erabakitzen duen entitatean gordailutuko dira.
- d) Gainerako ondasun higigarriak Patronatuak erabakitako eran zainduko dira.

Ondasun eta eskubide guztiak Inbentarioen Liburuan agertuko dira. Liburu hori Patronatuko idazkariaren eskura egongo da eta bere zaintzapean, identifikatzeko eta deskribatzeko behar diren egoera guztiak kontsignatuko dira.

II. ATALA. ERREGIMEN EKONOMIKOA.

29. Artikulua.- Ekitaldi politikoa

Ekitaldi ekonomikoa urterokoa izango da eta urte naturalarekin bat egingo du.

Ekitaldi ekonomiko bakoitzerako, Fundazioak ohiko aurrekontu bat prestatuko du. Bertan, era orekatuan, diru sarrerak eta gastuak bilduko dira.

Aurrekontu hori Protektoratuaren aurrean aurkeztuko da, onartzen den urteko azken hiruhilekoan, azalpen-memoria batekin.

30. Artikulua.- Ekonomia-kontabilitate betebeharrak

Patronatuak inbentario bat, egoeraren balantzea eta emaitzen kontua egingo ditu. Bertan, ondarearen eta ekonomiaren egoera eta Fundazioaren finantza egoera adieraziko dira. Horrez gain, urtean zehar egindako ekimenen memoria eta ondarearen kudeaketa ekonomikoa egingo dira. Hori nahikoa izango da Fundazioko helburuen eta legezko arauen betebeharra justifikatu eta ezagutzeko. Aurreko urteko sarreraren eta gastuen aurrekontuen kitapena ere egingo da, legeak agintzen duenaren arabera.

31. Artikulua.- Kontuak ematea

Urte bakoitzeko lehen sei hilabeteen barruan Patronatuak, Fundazioen Legearen 27. artikulua aurreikusten duen eran, justifikatu egin beharko du, Protektoratuaren aurrean, berak egindako kudeaketa Fundazioko helburuetarako egokia izan dela.

III. ATALA. BALIABIDEAK FUNDAZIOAREN HELBURURA APLIKATZEKO ARAUAK

32. Artikulua – Diru sarreraren eta administrazio gastuen xedea

- 1- Fundazioaren ondasun eta errentak Fundazioaren helburuak gauzatzera adskribituta daude, zuzenezuzenean eta berehala.
- 2- Fundazioak bere helbururako egokiak diren ekimenak programatuko ditu. Helburu hori lortzeko, urtero, prestakuntzen plangintza egingo da eta egiteko modua eta esleipena zehaztuko dira.
- 3- Helburu horiek betetzeko, lortzen diren unetik hasi eta hiru urteko epean, gutxienez, errenta garbien eta beste kontzepturen batengatik lortutako diru sarreraren %70a jarriko da, kenduta, hala badagokio, dagozkien zergak.

Ondare dotazio gisara egindako ekarpenek, bai eraketa unean, bai geroago egindakoek ez dute baldintza hori bete beharrik izango.

%20 baino gehiagokoak izan ezin daitezkeen administrazio gastuak kenduta, gainerako diru sarrerak fundazio dotazioa areagotzeko erabiliko dira. Protektoratuak aurkako zerbaite esan ezean, hala izango da legezko xedapenak eta araudiek aurreikusitakoaren arabera Fundazioak arrazoituta.

IV. TITULUA. ALDAKETA, BAT EGITEA ETA IRAUNGIPENA.

33. Artikulua.- Aldaketa

Fundazioaren helburuak hobeto betetzeko den neurrian, Fundazioko Patronatuak Estatutuen aldaketa eragin dezake. Aldaketa-akordioa onartzeko, gutxienez bertako kideen bi herenen aldeko botoa beharko da.

34. Artikulua.- Bat egitea

Patronatuak bat egin dezake beste entitate batekin edo gehiagorekin baldin eta Fundazioaren helburua behar bezala bermaturik geratzen bada. Akordioa onartzeko, gutxienez kideen bi herenen aldeko botoa beharko da.

35. Artikulua.- Iraungipena

Fundazioa honako kasuetan iraungiko da:

- 1- Kode Zibileko 39. artikuluan edo beste legeren batean aurreikusitako kausaren bat gertatzen denean.
- 2- Bat-egite prozesu baten emaitza denean.
- 3-Emaitza judizial tinko batez desegiten denean.

2004.03.23

36. Artikulua.- Iraungipen prozedura

1. eta 2. ataletan aurreikusitako kasuetan, Fundazioaren iraugipenak Patronatuaren akordioa eta Protektoratuaren berrespena beharko du.

Iraungipen akordioa ondo arrazoituko da, ondare egoeraren eta kitapen programaren izaerarekin.

Gobernu organoaren erabakirik ezean, edo erabaki hori Protektoratuak berretsi ezean, Fundazioaren iraugipenak motibatutako ebazpen judiziala beharko du. Emaizta hori Protektoratuak edo Fundazioko organoak aurkatu dezakete.

Iraungipen akordioa edo, kasua bada, motibatutako erabaki judiziala Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

37. Artikulua.- Kitapena

Sortzailearen nahia, fundazio eskrituran jasota dagoena, aintzat hartuta, fundazio kitapenetik sortutako ondasunak eta eskubideak interes orokorretako helburuetarako erabiliko dira, Patronatuak erabakita, haren espirituarekin bat eginez gero. Patronatuak egingo ez balu, iraugitako helburuen antzekoak dituzten beste fundazio edo entitate batzuetara igorriko ditu Protektoratuak. Egoitza herrian bertan dutenek izango dute lehentasuna, eta Udalerrian izan ezean, Lurralde Historiko berekoek.

V. TITULUA. PROTEKTORATUARENA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA

38. Artikulua.- Protektoratuarena

Fundazioa Protektoratuaren babes, aholkularitza eta kontrolaren mendean dago, indarrean dauden legeen terminoetan.

39. Artikulua.- Fundazioen Erregistroarena

Fundazio honen eraketa Legearen arabera eskumena duen Fundazioen Erregistroan inskribatuko da. Era berean, Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira legez horretara behartuak dauden Fundazioaren egintza edo negozio juridikoak.

VI. TITULUA. FUNDAZIOKO LAGUNTZAILEEN ERREGIMEN JURIDIKOA

40. Artikulua.- Atxikitako fundatzaileak

Fundazio-Kartaren izaera duen Eraketa Eskriturari, hura egiletsi ondoren, atxiki dakizkioke, sortzaile gisa, beste pertsona fisiko eta juridiko batzuk, baldin eta atxikipen hori egiten bada hura egiletsi eta bi urteko epean.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2004.03.23

Fundatzaile izaerako atxikipenak, aurretik zehaztutako epe baten barruan eginak, Patronatuko kideek onartu beharko dituzte. Era berean, Patronatuko kideek erabakiko dute izangaiek jarri beharko duten ekarpen ekonomikoa.

41. Artikulua.- Atxikitako laguntzaileak

Fundazio-Eskritura egiletsi eta gero, atxikitako laguntzaile gisan, Fundazioaren helburuak betetzen laguntzeko ekarpena edo ekimena egiteko gaitasuna duten pertsona fisiko eta juridikoek Fundazioari atxikitzeko ahalmena izango dute.

Aipatu berri dugun atxikipenen gaineko eskaerak Patronatuko kideen gehiengo osoz onartu beharko dira. Era berean, izangaiek jarri beharko duten ekarpen ekonomikoa zehaztea ere Patronatuko kideen eginbeharra izango da. Patronatuak hala erabakitzen badu, laguntzaile horiek Patronatuan parte har dezakete.

42. Artikulua.- Ohorezko laguntzaileak

Fundazioaren helburuak lortzeko ekarpen nabarmena egiten duten pertsona fisiko eta juridikoak ohorezko laguntzaile izenda ditzake Patronatuak.

Era berean, karguak eskatzen dituen protokolozko funtzioekin, Fundazioak herriko pertsona ospetsuren bat Ohorezko Presidente izenda dezake.

Hirugarrena: Fundazioa **BERROGEI MILA** (40.000) euroekin hornitzea. Kopuru hori guztia Fundazioaren eraketaren eskritura publikoa notario aurrean egiten denerako ordainduko da.

Laugarrena: Fundazioaren 1. Patronatuko kideak izendatzea:

Presidentea: Jokin Bildarratz Sorron, entitatea eratu duen Tolosako Udaleko alkatea.
Andoni Iturzaeta Arbillaga
Angel Bernardo Yañez Ares
Oscar Hugo Renedo Nieto
Jose M^a Vieites Gomez

Izendatuek, denak osoko bilkuran daudelarik, kargua onartu egin dute eta, era berean, adierazi dute ez daudela sartuta inolako bateraezintasun kausatan, abenduaren 26ko 25/83 Legeak eta aplikagarria den gainerako arauak xedatzen dutenaren arabera.

Bosgarrena: Fundación Tolosa 750 Aniversario/Tolosa 750. Urteurrena Fundazioaren Patronatuan parte hartzeko gonbidapena egitea Eusko Jauriaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Seigarrena: Aipatutako Fundazioaren eraketak eskatzen dituen legezko izapideak egiteko ahalmena ematea alkateari, Zuzenbideak onartzen duen eran, Eusko Jauriaritzaren Fundazioaren Erregistroan inskribatu bitartean.

2004.03.23

8. Iñaki Linazasorori omenaldia.

8. Homenaje a Iñaki Linazasoro.

Alkateak hitzegiten du lehenengo: “*Omenaldia Udal korporazioarena da eta ez partidu batena, ez gobernukideena, guztiona baizik.*”

Iñaki Linazasoro da, momentu honetan, batzen gaituen pertsona, ideologiak alde batera utzita. Eta hau, bere lanaren ondorioz da. Naiz eta Zumarragan jaiotako, Tolosari dedikatu dizkio ordu asko eta dedikatzen ari da. Bizitza osoan eman du Tolosako historia han eta hemen zabaltzen eta Tolosako bizimodu kulturalan parte hartu izan du. Eta horregatik, Udalbatza honek errekonozimendu bat egin behar dio. Gure herriko Alkate izan zen frankismoa bukatu eta hurrengo urtetan, eta momentu honetan, nahiz eta tentsio momentuak izan politikoki, bere garaian bizi izan zen tentsioarekin ez dauka inongo konparaketarik. Tentsioarekin bizitu zen eta aukera ekonomiko gutxiagorekin. Podemos recordar que el Ferial surgió de una gestión que hizo en Madrid, y consiguió que Ernesto Sabato viniese a este Salón de Plenos. Ha sido embajador de Tolosa por muchos países del mundo y ha hecho grandes aportaciones a la fiesta de San Juan. El tema del famoso tren y la situación del ácido clorhídrico, fueron situaciones difíciles de gestionar. Iñaki Linazasorok meritu ugari egin ditu Udalbatzak errekonozimendu bat egiteko. Datorren larunbatean, Aranburu Jauregian, erakusketa bat inauguratuko da 50 urtetan jasotako hainbat dokumentu grafiko, egoera grafiko eta azken finean historia bat erakusten diguna, eta Tolosako herriaren historiaren zati bat ere erakutsiko digu. “Nori berea datorren bidea, ” que todo lo que nos ha aportado Iñaki, todo lo que él a aportado al pueblo, hagamos lo mismo con él.

Que esto sea una muestra de reconocimiento, de afecto, aprecio y voluntad que tenemos hacia la persona, por lo que ha hecho por nosotros.”

Jose M^a Vieites Gomez: “*El reconocimiento a los méritos por la actividad qu ha desarrollado esta persona en Tolosa sería interminable, y siendo embajador como ha sido dentro y fuera de estas fronteras, es merecedor de este homenaje. Yo creo que destacaría, más que por sus palabras, por sus hechos. Por destacar alguna cuestión, me sorprendió en el tema de medio ambiente; se adelanto a los tiempos, se ha preocupado no solo del medio rural y del medio social. Su exigencia a la depuración y tratamiento de las papeleras cuidando nuestro río Oria, para que fuera lo menos afectado posible. Hablar de la historia y de la vida de Iñaki Linazasoro, a cualquier autor que se le encargue su biografía, se le haría muy extenso el volumen. Yo, como ciudadano integrado aquí, tengo que agradecer a Iñaki Linazasoro su amor por Tolosa, por todo lo que ha hecho, extendiendo en el mundo entero nuestra ciudad y nuestra cultura.”*

Oscar Hugo Renedo Nieto: “*Decir que nos parece un homenaje justo y merecido a una persona tan entrañable y valiente como Iñaki Linazasoro.*”

Hombre polifacético donde los haya, fotógrafo, conferenciante, escritor, cronista, guía turístico, político...

En cualquiera de sus facetas, su trayectoria ha estado siempre ligada a llevar el nombre de Tolosa no solo por la geografía Española, sino a nivel mundial.

Políticamente, hay que reconocer su inigualable valor y su labor en unos años especialmente

2004.03.23

duros en plena transición.

Desde el PSE-EE nos sumamos gustoso a este homenaje y por supuesto que no faltaremos a la cita del sábado día 27 de marzo.”

Angel Bernardo Yañez Ares:

“Queridos amigos:

Más que como portavoz de un grupo político de esta Corporación, ruego se me permita hablar a título personal en consideración a la amistad con que me honra desde hace más de un cuarto de siglo el homenajeado Iñaki Linazasoro.

Pienso que la corriente de empatía entre las personas, por lo general, tienen su origen en aspectos o circunstancias que les son comunes y así puede considerarse nuestro caso.

Iñaki y el que os habla casi somos de la misma “quinta”, los dos somos “foráneos”, si bien uno es mas “foráneo” que el otro, ambos nos hemos enamorado de Tolosa y de Tolosarras, aquí nos hemos casado y formamos largas familias, aunque también la de uno es más larga que la del otro, pero ya se sabe que para esto habrá quien recurra a todo tipo de explicaciones más o menos convincentes.

Fuimos vecinos próximos durante más de una década.

Coincidimos colaborando en diferentes acontecimientos culturales de la Villa, siendo el más destacado el que hace referencia a las primeras épocas del Certamen de Masas Corales, del que nos queda a muchos el recuerdo emotivo de la jornada de clausura, donde se podía vibrar cantando el “Agur Jauna”, bajo la batuta de nuestro querido Iñaki con su txistu y tamboril.

Todo esto pertenece a mis vivencias en relación con Iñaki y que no deja de ser una mera anécdota personal que a pocos les puede importar, salvo a mí mismo, de ahí que mis palabras sean, principalmente, a título personal, como he dicho al principio.

Para completar esta glosa quiero dar a conocer otra referencia personal que incrementa las buenas relaciones que tenemos.

Como saben todos, Iñaki Linazasoro fue el primer Alcalde del nuevo régimen democrático en el que vivimos desde hace más de 25 años.

También se recordará que antes de ser elegido Alcalde de Tolosa, Iñaki presidió, hasta la convocatoria de las primeras elecciones municipales democráticas, una Gestora que rigió esta Administración local.

*Pues bien, me satisface contarles que se da la coincidencia que el que les habla desde este lugar de representación de política municipal, compartió con el bueno de Iñaki responsabilidades políticas en aquella “**Gestora Municipal**”. Como muy bien dirá nuestro homenajeado, en aquellos tiempos tan difíciles, años 1978 –1979, no nos faltaron problemas, pero el haber contribuido a su solución, estrechó nuestras buenas relaciones. Para mí fue gratificante estar trabajando con él al servicio de los ciudadanos y ver que algunas de nuestras actuaciones todavía*

2004.03.23

perduran, como podemos decir, a título de ejemplo, la construcción del Polideportivo municipal, que, con sus carencias, lleva prestando un servicio público desde hace mas de 20 años.

Después de aquella época tan convulsa, mi afecto hacia Iñaki fue en aumento, y si admiro sus dotes literarias, no menos valoro su capacidad de integración con las personas con las que recorre el mundo, tanto los lugares próximos como los más lejanos; sabemos que a cualquier lugar lleva a Tolosa en el corazón, de ahí que se le pudiera dar el título de "EMBAJADOR HONORARIO DE TOLOSA".

Sabemos que en el futuro esta función no dejará de hacerla Iñaki como un hombre de bien que es, que está enamorado de Tolosa y que quiere seguir ofreciendo su amor a sus conciudadanos, como es el caso también del que les habla, que aprovecha para expresar su más profundo agradecimiento por honrarle con su amistad y, de manera colectiva, por los grandes servicios que ha prestado a este pueblo.

Por todo ello, ¡muchas gracias Iñaki!. Que sigas así.

Y para finalizar, me permito sugerirte, como uno de tus objetivos del año, que nos regales una nueva colección graciosa de "gazapos de prensa" el día 28 de diciembre, cuando el presente toque a su fin."

Onintza Lasa Arteaga: "Por ponerle un título, me parece muy bien el de "Embajador honorario de Tolosa". Personalmente no podría imaginar que pudiera tener semejante currículum y te da que pensar en todas las cosas que se pueden hacer en esta vida si la aprovechamos. Es un hombre muy entregado a los suyos y a Tolosa. Es un embajador de Tolosa y de la cultura vasca. Colaboraremos con todo lo que pueda salir en el futuro, y si es cierto que hoy se tiene una sensibilidad por la ecología, pero para aquella época era muy avanzada. Es una persona que aprovecha los pequeños detalles de la vida. Es un hombre universal, que tiene un profundo amor a Euskal Herria, y un espíritu muy abierto."

Jokin Azkue Arrastoa: "Berak Tolosa babestu duen bezela, guri tokatzen zaigu bera babestea. Omenaldi hau beharrezkoa da. Kanpoan ezagutu nuen nik Euskal Etxe batean, eta euskaldunei buruz transmititzen duen mezua, hori da zabaldu behar dena. Aipatu, diktadura garaian ezin zen politikarik egin, eta berak mezua kulturatik egin zuen, idatziz, "Zeruko Argia"n, orain Argia dena, eta hortik lan asko egin zuen demokrazia etortzeko. Esparru guztiak landu ditu, eta hasieran esandakoa, Tolosa berak babestu du, eta orain guri tokatzen zaigu bera babestea."

Hori guztia adierazi eta gero, Kulturako diktamenarekin bat etorri, Udaltzako, ahobatez, talde guztien ordezkariak aurkeztu direlarik,

OHIZKO OSOKO BILKURA

2004.03.23

ERABAKI DU

Lehen.- Iñaki Linazasoro Materi, Tolosaren alde egin duen guztiagatik eta garai zailetan herrigintzako ardura nagusiak hartzeko izan duen adorea gatik, datorren martxoaren 27an Udalbatzaren osoko bilkuraren omenaldia eta errekonozimendua adieraztea eta horretarako ekitaldi berezi batea Areto nagusian antolatzea.

Bigarren.- Erabaki honen berri interesatuari eta Kultura Batzordeari ematea.

9. Galde-erreguak.

9. Ruegos y preguntas.

Ez da egon.

Besterik gabe, gaueko hamarretan, bilera bukatutzat eman da.

Sin más asuntos que tratar, siendo las diez de la noche, se da por finalizada la sesión.

ALKATEA

IDAZKARIA